Arizmendi ikastola · Arrasate Herri Eskola · Mondragón Ikastetxea

29. alea
2004-Maiatza

# HEZKIDETZAN Pausoz pauso

# Paso a paso En la COEDUCACIÓN






2. eta 3. zikloak

# sentimenduak

Aukera ezazu aste honetako egun bat eta gogoratu eta hausnartu zein sentimendu adierazi zenituen eta zein unetan. Hau da, poza, maitasuna, esker ona, haserrea, eskuzabaltasuna, laguntza, tristura... eta esan nori adierazi zenion eta zergatia.

Elige un día de esta semana y recuerda qué sentimientos has demostrado y en qué momento. Es decir, alegria, amor, agradecimiento, enfado, generosidad, ayuda, tristeza... y dí a quién se lo expresaste y porqué.

| | SENTIMENDUA<br>SENTIMIENTO | NORI<br>A QUIEN | ZERGATIA<br>POR QUE |
|---|---|---|---|
| Goizean<br>A la mañana | | | |
| Eguardian<br>Al mediodía | | | |
| Arratsaldean<br>A la tarde | | | |
| Gauean<br>A la noche | | | |

**Testua kontutan hartuta marraztu komikiaren atal edo pasarte guztiak. Beti ere, pertsonaia bakoitzaren sentimenduak edo egoera kontutan izanik, hau da, pozik, negarrez, beldurtuta, lotsatuta... dauden.**

Teniendo en cuenta el texto, dibuja cada parte del comic, expresando los sentimientos y el estado de ánimo de los personajes. Es decir, si estan llorando, tienen miedo, estan avergonzados o avergonzadas...

*Unax eta Amaiur bizilagunak dira eta larunbatero elkarrekin jolastu ohi dute. Unax futbolzale amorratua da baina Amaiur jada aspertuta dago beti berdinera jolasteaz. Amaiurrek jolas ezberdinak proposatzen dizkio, sokasaltoan, gorde-gordeka... baina Unaxek ezetz. Larunbat honetan berriz ere futbolean aritzen dira.*

*Unax atezaina izango da eta Amaiur aurrelaria, beraz golak sartzen eta gelditzen saiatu behar dira. Amaiur piskat amorratuta dago beti futbolean jolasten amaitzen baitute; amorru eta indar handiz baloia txutatu eta Unaxek baloia gelditu nahian, irristatu eta lurrera erori da min hartuta, baloiak aurpegian eman baitio.*

*Amaiurrek barkamena eskatu eta lurretik altxatzen laguntzen dio. Oso kezkatuta dago eta amari deitzen dio etxetik jeitsi dadin ea Unax ondo dagoen ikustera. Amak etzuela ezer, zauriak garbitu eta askaltzeko ordua dela esanez, guztiak etxera abiatu dira otartekoaz gozatzera.*

*Askaldu ondoren, jolasten jarraitzen dute. Futbolean ari dira oraingoan ere eta halako batean, Amaiur baloia txutatzera doala harri batekin estropozu egin eta muturrez aurrera lurrera erori da min hartuta.*

ZER USTE DUZU GERTATUKO DELA?
EMAN ZUK NAHI DUZUN
AMAIERA EDO BUKAERA

- Unaxek baloia gelditu nahiean min hartzen du, negarrik egingo ote du? Zure ustez mutilek negarrik egiten al dute?

- Eta Amaiur erortzen denean gauza bera gertatuko dela uste al duzu?

- Zer egingo dute inguruko pertsonek? Bi kasuetan era berean jokatuko dutela uste al duzu?

**Imajina ezazu** lagun batekin gelditu zarela irtetzeko eta oso ondo pasatu duzula (jolasten, zineman...). Agurtzeko ordua iristean, nola sentitzen zaren adierazi nahi diozu, nola egingo zenuke? Zein esaldi erabiliko zenuke?

- Zera esan nahi nizun, ba, tira, ezer ez.
- Oso gustora pasatu dut arratsaldea zurekin. Horixe esan nahi nizun.
- Bihar arte.
- Utziko didazu muxu bat ematen?
- ______________________

**Imajina que** has quedado para salir con un amigo o amiga y que lo has pasado muy bien (jugando, en el cine...). A la hora de despedirse, le quieres expresar como te sientes, ¿Cómo lo harias? ¿Qué frase utilizarías?

- Te quería decir, ieh! bueno, nada.
- He pasado la tarde muy a gusto contigo. Eso es lo que te quería decir.
- Hasta mañana.
- ¿Me dejas darte un beso?
- ______________________

**Esan zer egingo zenukeen** egoera hauetako bakoitzean eta nola sentituko zinakeen:

- Zu mutil bat zara, eta gelako neska batek zutaz maiteminduta dagoela esaten dizu.

______________________

- Zure lagun batek gona edo prakak jeitsi nahi dizkizu.

______________________

- Zure gelakide batek gela guztiaren aurrean azterketa kopiatzeaz salatu zaitu.

______________________

- Lagun batek muxu baten truke zinemarako bi sarrera eskaintzen dizkizu.

______________________

**Dí qué haríais** en las siguientes situaciones y como te sentirías:

- Tu eres un chico y una chica de tu clase te dice que esta enamorada de ti.

______________________

- Un amigo o amiga te quiere bajar la falda o los pantalones.

______________________

- Un compañero o compañera de clase te ha acusado o delatado de haber copiado el examen.

______________________

- Un amigo o amiga a cambio de un beso te ofrece dos entradas para el cine.

______________________

**Nola erantzungo zenuke** egoera hauetako bakoitzean

- Amak asko maite zaituela esan dizu.

______________________

- Lagun batek ez duela zurekin gehiago jolastu nahi esaten dizu

______________________

- Neba-arrebak lagunduko dizula gela batzen esan dizu

______________________

- Irakasleak zoriondu egin dizu egindako lanagatik.

______________________

**¿Cómo responderías** en las siguientes situaciones?

- Tu madre te dice que te quiere mucho.

______________________

- Un amigo o amiga te dice que no quiere jugar más contigo.

______________________

- Tu hermano o hermana te dice que te ayudará a recoger el cuarto..

______________________

- El profesor o profesora te felicita por el trabajo realizado.

______________________

# Gurasoen txokoa



**Oraingoan sentimenduen inguruan aritu gara, hona hemen labur bada ere honi buruzko informazio gehiago.**

En esta ocasión hemos elegido el tema de los sentimientos, he aquí mas información sobre este tema.

Sentimenduak gure barnean sortzen dira eta hauek adieraz daitezke edo ez. Normalean gorputzaren bitartez adierazten dira. Hauek barne barneko sentimenduak edo egoera konkretu batek gugan eduki dezakeen eragina isladatzen dute.

Maitasunezko ferekak, atseginak izateaz aparte oinarrizkoak dira inteligentzia emozionalaren garapenerako. Kontutan izan behar dugu aspektu honetan ere gizartea dela honako hauek zehazten dituena: fereka hauek ontzat hartzea, nork hartu eta jaso ditzakeen eta zein egoeratan. Horrela sortzen dira gero mugak. Gorputzeko zenbait atalen ferekak mugatzen dira eta gizonei gorputzaren bidezko kontaktuak emakumeei baino gehiago mugatzen zaizkie.

Los sentimientos se producen en nuestro interior y pueden expresarse o no. Las emociones suelen tener normalmente una expresión corporal. Estas pueden reflejar un sentimiento profundo o una respuesta a algo que nos conmueve en una circunstancia concreta.

La manifestacion de cariño a través de las caricias es, además de placentera, fundamental para el desarrollo emocional. Hay que tener en cuenta que es el entorno cultural quien determina que caricias son licitas, quien puede hacerlas y recibirlas y en que circunstancias. Se van construyendo hasi los limites: se van delimitando las zonas corporales a acariciar y a los hombres se les limita el contacto corporal mas que a las mujeres.



Egileak:
Oihana Aranburu,
Ursuia Etxebarria.

Koordinatzailea
Bizkaiko Urtxintxa Eskola

Babeslea:
Arrasateko Udala